


kudeaketa plana

2019/23





Herritar agurgarri hori,

Urte hasieran, ilusio handiz ekin genion 2020ari, anbiziiodun udal-aurrekontu bat geneukan, abian jartzear zeuden proiektu garrantzitsuekin... baina martxoan, Covid-19a heldu zen, plan hauetako asko hankaz gora jarriz eta zuzen-zuzenean, gure itxaropen onei eraginez.

Ordutik, hilabete gogorak bizi ditugu, gizarte-isolamenduak markatutako hilabeteak, neurri murriztaileen ondorio ekonomikoek markatutako hilabeteak eta, kasurik okerreanean, gure senide edo lagunak galdu ditugun hilabeteak. Aldi honetan, Udalaren lehentasuna **egoera txarrean dauden pertsonen arreta ematea** izan da, kolektibo ahulenen premia larrienei erantzunez.

Lehen egunetik, are agerikoagoak dira herri gisa ditugun ezaugarriak, **elkartasuna** eta **bizikidetzak**. Alde horretatik, eskerrak eman nahi dizkiet derioztar guztiei izan duten pazientzia, ulermen eta jarrera ezin hobeagatik.

Egoerak indarrak bateratzea eskatzen du. Ondorioei aurre egin eta auzotar guztien ongizatea eta bizi-kalitatea bermatzeko lan egitea besterik ez zaigu geratzen. Zeregin honen baitan, azken hilabeteetan, herritarren behar berriei aurre egiteko pandemiak kolpatu aurretik prest geneukan **2019-2023 ALDIRAKO KUDEAKETA-PLANA** egokitzen aritu gara.

Lan horren guztiaren emaitza da Plan hau, azken urteetako hainbat **partaidetza prozesutan jasotako HERRITARREN ekarpenak** biltzen dituen. 3 arlo nagusitan egituratutako ekintzen eta proiektuen bidez erantzuna emango zaien Derioko etorkizuneko erronka nagusiak jasotzen dituen dokumentua: **Herritartasuna, Antolakuntza eta Lurraldeak**. Arlo

horietan sartzen dira lehentasunezko **21 jarduera**, hurrengo orrialdeetan zehazten ditugun **8 helburu** estrategikotan sailkatuta.

Gure bide orria izango da eguneroko kudeaketan. Plan berrikusgarria, ebaluagarria eta agintaldian zehar jarraipena egiteko, ebaluatze eta betetzeko mekanismoak ezartzen dituen.

Nire **konpromiso pertsonala atsedetik gabe lan egitea da, Derio are udalerrri hobea izan dadin**. Guztiontzako aukerak dituen udalerrria, gure elkarteei eta gure komertzioei lagunduz. Derio modernoa, jasangarria, bizitzaz betea, adinekoekin adiskidetsua, gazteriaren eta enpleguaren alde, kulturaren alde, kirolaren alde, berdintasunaren alde egiten duena. Derio solidario bat, errespetua eta aniztasuna bezalako baloretan batua.

Gobernu Plan honek, gure sustraiak ahaztu gabe, etorkizunari ilusioz begiratzen dion Derio hobe baterantz **aurrera** egiteko aukera emango digu, guztiok protagonista aktibo izan behar dugun udalerrri baterantz alegia.

Ahalegin partekatua da Derion Covid-19ak sortutako egoerei aurre egiteko gure bermea. Elkarrekin dena ondo ateratzea lortuko dugu. Deriok aurrera egingo du. **Derio martxan da.**

*Esther Apraiz,
Derioko Alkatea*



antolakuntza

Udal bat bere herritarren zerbitzura dago eta bere eskarien mailan egon behar du, zerbitzu arin, eraginkor eta konprometitu bermatuz. Horregatik, errentagarritasun-irizpideak aplikatuz, gure zerbitzuen kalitatea etengabe lantzen jarraituko dugu. Gure helburua administrazio sendoa, eraginkorra, orokorra eta herritarrarengandik hurbil dagoena lortzea da. Gardentasuna, Gobernu Onarekiko konpromisoa eta kudeaketa- eta ebaluazio-sistemak erakundearen etengabeko hobekuntza bermatuko dute.



herritartasuna

Udalerrri bat bere Komunitateak osatzen du. Komunitate konprometitu batekin arrakasta eta etorkizuna ziurtatuta daude. Elkarteeak, familieak, adinekoek, gazte ekintzaile eta konprometituek eta administrazioek elkarrekin lan egin behar dugu, modu jasangarri, osasuntsuan garatzeko eta aniztasuna, elkartasuna eta herritarren parte-hartzea sustatzeko.




lurraldea

Gizarte baten eta bere bizimoduaren aldaketak lurraldearen eraldaketaren bidez agertzen dira, eta, era berean, lurraldean gertatzen diren aldaketek udalerriko biztanleriaren bizikaltatean aldaketa eragiten dute. Azpiegitura eta ondarearen mantentzea, irisgarritasuna, Diseinu Unibertsalaren kontzeptua Derioko etorkizuneko eraikuntza sozialean eragiten duten udal-jarduera guztietan egon behar dira.



antolakuntza





1. administrazio eraginkorra

- _ ANTOLAKUNTZA BERRIA
- _ LANGILEEN TREBAKUNTZA
- _ ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOA:
HERRITARRENTZAKO UDAL BIZKORRAGOA
- _ KUDEAKETA-SISTEMA / EBALUAZIO ETENGABEKOA

2. gardentasuna

- _ PUBLIZITATE AKTIBOA AREAGOTU ETA INDARTZEA
- _ INFORMAZIOA ESKURATZEKO ESKUBIDEA BERMATZEA
- _ GOBERNU ONA EZARRI ETA BERMATZEA





1. administrazio eraginkorra:

ANTOLAKUNTZA BERRIA

Antolaketa instituzionala eta administratiboa gizartearen errealitatera egokituko dugu, Udala administrazio eraginkor eta efiziente bihurtzeko. Giza baliabideak arrazionalizatzeko programa bat egingo dugu. Langileen barne-produktibitatea hobetzeko lan egingo dugu. Halaber, komunikaziorako eta informaziorako barne-sistema berriak ezarriko ditugu.

LANGILEEN TREBAKUNTZA

Urtero, langileen gaitasun profesionalak garatzera bideratutako Prestakuntza Plana onartuko dugu, haien gaitasunak hobetze eta zabaltze aldera, zerbitzua herritarren eskaeretara egokitzeko.

ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOA: HERRITARRENTZAKO UDAL BIZKORRAGOA

Ohiko kanalez gain, herritarrei Udalarekin telematikoki harremanetan jartzeko eskubidea bermatuko diegu, joan-etorri fisikoak saihestuz eta urteko 365 egunetako 24 orduetan edozein izapide egiteko aukera emanaz. Honako hauek

gaineratuko ditugu:

- Terminal bat kiroldegian, ohiko izapideak egin ahal izateko (eskaeren eta agirien erregistroa, erroldatze agiriak, *bikoiztuak*, *zergen ordainketa*, *inskripzioak*, *etab.*).
- Espedienteak kudeatzeko programa, barne-izapideak optimizatzeko eta herritarren eskaerei erantzuteko denborak murrizteko.

KUDEAKETA-SISTEMA / EBALUAZIO ETENGABEKOA

Barneko kudeaketa- eta etengabeko ebaluazio-sistema bat ezarriko dugu, antolakuntza eta Udalak herritarrei eskaintzen dizkien zerbitzuen etengabeko hobekuntza bermatzeko.

2. gardentasuna:

PUBLIZITATE AKTIBOA AREAGOTU ETA INDARTZEA

Derioko Udalak bermatzen duen balio nagusietako bat kudeaketaren gardentasuna da. Horretarako, webguneko gardentasunaren ataria bultzatzearen alde egingo da:

- Atalen egitura intuitiboagoa.
- Informazioa eguneratzea.
- Arduradun politikoen eta gobernu-organismoen jarduerari buruzko informazioa indartzea.

INFORMAZIOA ESKURATZEKO ESKUBIDEA BERMATZEA

Udalaren web gunean dagoen **ZABALTZEN** atala sustatuko dugu, herritarrak Udalarekin komunikatzeko bidea izan dadin. Kanal honen bidez jasotzen diren jakinarazpenak modu errazean izapidetuko dira, Udal Erregistroan aurrez-aurre edo posta arruntaren edo faxaren bidez idatziz jasotzen direnen bide berberak erabiliz.

GOBERNU ONA EZARRI ETA BERMATZEA

Etika eta Gobernu Onaren Kodea adostuko da korporazio osoarekin, Gobernu taldeak demokraziarekin eta kalitate instituzionalarekin duen konpromisoari erantzunez.



hiritartasuna



1. herritartasun aktiboa sustatzea

- _ ELKARTEGINTZA SUSTATU ETA BULTZATZEA
- _ KULTURA-, KIROL- ETA AISIALDIKO JARDUERA SUSTATZEA
- _ HERRITARREN PARTE-HARTZEA BULTZATU ETA SUSTATZEA

2. gizarte babesa bermatze

- _ POLITIKA INKLUSIBOAK BABESTU ETA GARATZEA
- _ ZERBITZU-ZORROA IKUSGAI EGITEA
- _ GIZARTE IZAERAKO ELKARTE ETA EKIMENEN JARDUERA BULTZATU ETA SUSTATZEA



1. herritartasun aktiboa sustatzea:

ELKARTEGINTZA SUSTATU ETA BULTZATZEA

Elkarteak elkar ezagutzea eta, bereziki, sinergiak bultzatuko ditugu, udalerriko bizitza eta dinamismoa mantendu eta indartzeko. Udal-elkarteen lana bultzatu eta erraztuko da, honako hauen bidez:

- Laguntzen eta diru-laguntzen ordenantzen berrikusketa.
- Diru-laguntzak tramitatzeko prestakuntza eta laguntza






KULTURA-, KIROL- ETA AISIALDIKO JARDUERA SUSTATZEA

Antolatzen diren programak aztertuko ditugu; aisia, kultura eta kirolaren arloan dauden gabeziak eta indartu beharreko puntuak identifikatzeko, eragileen parte-hartzea bermatuko duen udalerrri sortzaile, osasuntsu, dinamiko eta euskalduna sustatzeko xedez. Horretarako, kirol instalazioak eta ekipamendua ere egokitu eta indartuko dira.

- Udal Kirol eta Kultura Plana idaztea.
- Gazteen aisialdiaren azterlan bat egitea.
- Gazteentzako jarduerak garatzea.
- Udaleko Euskara Plana garatzea.
- Eremu desberdinetan zeharka euskararen erabilera sustatzea.
- Euskararen normalizazioaren eta gure kulturaren alde egiten duten ekimen, elkarte eta pertsonen bultzada eta laguntza ematea.
- Hirugarren adinekoentzat programak / ludoteka abian jartzea.

- Kirola familian egitea eta eskola-adinekoen kirol- eta aisia-jarduerak (Multikirolak, etab.) sustatzea.
- Kirol Txartela ezartzea.
- Ikasteko gelak handitzea (espazioa eta ordutegia)



1. herritartasun aktiboa sustatzea:

HERRITARREN PARTE-HARTZEA BULTZATU ETA SUSTATZEA

Komunikazioa, gardentasuna, hurbiltasuna eta kontu-ematea izango dira Udalaren gobernagarritasun-printzipioak.

Gardentasun Ataria berrituko da, jasotako informazioa modu erraz eta ulergarrian transmititzeko, udal zerbitzuen mapa osatuz eta berrituz. Metodologia berriak erabiliko dira aurrekontuak herritarrekin egiteko, eta herritarren parte hartzea sustatuko da udal erabakietan.

- Aurrekontu parte hartzaileak.
- Haurren hirien Sarea (Eskolara Lagunekaz eta Umeen Kontseilua).
- Derioko herritarrekiko komunikazio bideak egokitu (focus group, online bozketak, etab.) eta udal ekimen desberdinetan parte hartzaile izatea lortzea.



2. gizarte babesa bermatzea:

POLITIKA INKLUSIBOAK BABESTU ETA GARATZEA

Derioztarren ongizatea da garrantzitsuena.

Horretarako, integrazioa eta zahartze aktiboa sustatzeko programei lehentasuna emango zaie, eta Covid-19ak eragindako pandemian sor daitezkeen ekimen berri guztiak jarriko dira abian, gure komunitatearen beharrei erantzuteko, etorkizuneko erronkei aurrea hartuz.

- Behar berriak asetzeko laguntza izendunak ematea.
- Eguzkilorerekin sinatutako gizarte-larrialdietarako etxebizitzetxei buruzko hitzarmenari eustea.
 - Berdintasunerako Udal Plana eta udal-ekintza garatzea, genero-ikuspegi orokor eta tranbertsaletik, genero-ikuspegia udal-proiektu eta -politika guztietan kontuan har dadin.
 - LGTB+ kolektiboa ikusarazten eta babesten duten jarduerak garatzea.

- Adinekoen esparruko plana diseinatzea honako atal hauetan egitaratuz: diagnostikoa, estrategia eta ezarpena eta jarraipena.

ZERBITZU-ZORROA IKUSGAI EGITEA

Derioztar guztien ongizatea bermatze aldera, herritarrei dauden gizarte zerbitzu guztien berri emango zaie eta horien tramitazioa erraztuko da. Halaber, baztertuta geratzeko arrisku handian dauden herritarrentzako laguntzak indartuko dira.

GIZARTE IZAERAKO ELKARTE ETA EKIMENEN JARDUERA BULTZATU ETA SUSTATZEA

Parte-hartze komunitarioa indartzeko laguntza-sarea bultzatzea.

- Boluntarioentzako eta, batez ere, gizarte-izaerako elkarteentzako laguntzak.
- Euskal Fondoarekin lankidetzeta estua.

lurraldea



1. espazio eta ondare publikoaren hobekuntza, kontserbazio eta mantentze eraginkor eta arrazionala

- _ ESPAZIO PUBLIKOAREN KONTSERBAZIO ETA MANTENTZE ERAGINKOR ETA ARRAZIONALA
- _ ONDARE PUBLIKOAREN KUDEAKETA ERAGINKORRA
- _ UDAL INBERTSIOA HOBEKUNTZA ETA PROIEKTU BERRIETAN

2. segurtasuna, irisgarritasuna eta mugikortasuna bermatzea

- _ SEGURTASUNA AREAGOTZEN JARRAITZEA
- _ UDALERRIAN IRISGARRITASUNA HOBETU ETA BERMATZEA
- _ MUGIKORTASUN JASANGARRIA SUSTATZEA

3. hiri- eta ingurumen-berrantolaketa

- _ HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN OROKOR BERRIA IDAZTEA
- _ INGURUMEN- ETA JASANGARRITASUN-JARDUERAK SUSTATZEA

4. udalerriko jarduera ekonomikoa sustatzea

- _ PLAN ESTRATEGIKOAREN GARAPENA
- _ MERKATARITZA- ETA OSTALARITZA-SAREA SUSTATZEA ETA HAREKIN LANKIDETZAN ARITZEA
- _ ENPLEGUA SUSTATZEA ETA LANERATZEA ETA ENPLEGAGARRITASUNA HOBETZEA



1. espazio eta ondare publikoaren hobekuntza, kontserbazio eta mantentze eraginkor eta arrazionala:

ESPazio PUBliKOAREN KONTSERBAZIO ETA MANTENTZE ERAGINKOR ETA ARRAZIONALA

Udalerri garbi, adeitsu eta zaindu baten aldeko apustua egingen dugu. Garrantzi berezia emango diegu espazio publikoen eta instalazioen mantentze- eta kontserbazio-lanei:

- Hiri-altzari eta parke eta lorategien garbiketa.
- Bideak: espaloi eta galtzaden konponketa eta landa-bideak hobetzea.
- Argiteria publikoa eta saneamenduko udal-sareak.

Zerbitzuen egoeraren diagnostikoa egingo dugu, gorabeheren detekzioa hobetzeko.

ONDARE PUBliKOAREN KUDEAKETA ERAGINKORRA

Honako jarduera hauek lehenetsiko ditugu:

- Udal eraikinen inbentarioa.
- Gaur egun bideratuta dauden zerbitzuetarako egokiak diren baloratzea.

- Larrabari Baserría handitzea, gaur egungo erabilerara, haur eta gazteen aisialdirako, egokitzeko. .
- Erretiratu eta Nagusien Etxea egokitzea.
- Eraikinak udal elkarteei edo hirugarrenei lagatzeko modua arautzea.

UDAL INBERTSIOA HOBEKUNTZA ETA PROIEKTU BERRIETAN

Kirol eta kultur azpiegiturretan inbertsioak egingo ditugu instalazioak egokitu eta berritzeko:

- Kiroldegiko kanpoko pistak estaltzea, funtzionaltasuna hobetzeko eta erabilera zabaltzeko.
- Instalazio berriak Uribe parkean, zabu klasikoetatik aldenduz. Eskaintza zabaltzen duen skate-park gunea.
- Futbol 7ko zelai berri bat sortzea.



2. segurtasuna, irisgarritasuna eta mugikortasuna bermatzea:

SEGURTASUNA AREAGOTZEN JARRAITU

Herritarren segurtasun zerbitzua bermatzen eta hobetzen jarraitzeko, jarduera hauek aurreikusten dira:

- Udal Plan Zibila onartzea.
- Herritarren bizikidetza sustatzeko kanpainak egitea.
- Hurbileko polizia baten aldeko apustua, kalean presentzia areagotuz eta zerbitzua urteko gau jakin batzuetara zabalduz.
- Argiteria publikoa LED motako teknologiarara aldatzea.
- Trafikoa lasaitzeko neurriak ezartzea Uribe eta Ganbe kaleetan.
- Eraikin publikoetako eta eremu publikoetako bideozaintza zerbitzua bateratu eta hobetzea.



2. segurtasuna, irisgarritasuna eta mugikortasuna bermatzea:

UDALERRIAN IRISGARRITASUNA HOBETU ETA BERMATZEA

Ingurune eta zerbitzuak pertsona guztien eskura jartzen dituen Derio eraikiko dugu. Honako ekintza hauek egingo ditugu:

- Irisgarritasun Plana eguneratzea, beharrezko jarduerak jasoz.
- Unbe, Aizkorri eta Txorierriko Etorbidea kaleak berroneratu eta birgaitzea.
- Udal eskolako aldagelak berritzea.
- Herriko Plaza eta Euskal Herri kalearen ingurunearen berrurbanizazioa..

MUGIKORTASUN JASANGARRIA SUSTATZEA

Ingurumen-politikei, baliabideen erabileraren eraginkortasunari eta mugikortasunari dagokienez, Derio jasangarri baterantz egingo dugu:

- Mugikortasunaren diagnostikoa egingo dugu eta Hiri Mugikortasun Iraunkorrerako Plana (HMIP) berri bat egingo dugu, parte-hartzearen ikuspuntutik, oinezkoari lehentasuna emateko , trafikoari eta aparkalekuei ekiteko eta genero-

ikuspegia integratzeko.


- Bizikletaren erabilera sustatuko dugu. Bizikleten Plana eguneratuko dugu.
- Hiri Mugikortasun berri baterako transizioa egiten den bitartean, aparkaleku eremu batzuk eraikitzea proposatuko da, egungo beharrei erantzun ahal izateko, bai erdigunean, bai udalerriko beste eremu batzuetan.



3. hiri - eta ingurumen- berrantolaketa:

HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN OROKOR BERRIA IDAZTEA (HAPO)

Egungo Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak, 2003koak, ez die erantzuten egungo hirigintzako araudi eta beharrei. HAPO berri bat idatziko dugu, Derioko etorkizuneko eredu antolatu eta diseinatzeko, herritarrek parte hartzeko prozesu baten bidez, modu jasangarrian, ingurumena errespetatuz eta integratuz. Parte hartzeko ekimenak bultzatuz, etorkizuneko belaunaldiek beren ideiak eman ditzaten eta bizitzeko eta lan egiteko Derioren alde egin dezaten.



INGURUMEN- ETA JASANGARRITASUN-JARDUERAK SUSTATZEA

Neurri zehatzak hartuko ditugu ingurumena zaintzeko eta derioztarrazek ingurumena zaintzeko kontzientzia eta erantzukizuna har dezaten. Zentzu horretan:

- Parte-hartzearen ikuspuntutik, klima aldaketaren aurkako Plan bat idatziko dugu, emisioak eta energia murrizteko eta kudeatzeko neurriak proposatzeko xedez.
- LED argiak jarriko ditugu udal eraikinetan eta argiteria publikoan.
- Udal ibilgailuen parkea aldatzea bultzatuko dugu, pixkanaka elektrikoak izan daitezen eta ibilgailuak elektrikoki kargatzeko puntu bat jarriko dugu.
- Hondakinen kudeaketa optimizatuko dugu, gaikako bilketaren datuak hobetzeko sentzibilizazio- eta kontzientziazio-kanpaina berrien bidez.



4. udalerriko jarduera ekonomikoa sustatzea:

PLAN ESTRATEGIKOAREN GARAPENA

Udalak plan bat egingo du COVID-19ak eragindako ziurgabetasun-une hauetan merkataritza, ostalaritza eta jarduera ekonomikoa bultzatzeko ibilbide-orria zehazteko. Sektorearen garapenerako, hazkunde ekonomikorako eta enplegagarritasuna handitzeko lan-ildo bateratu eta espezifikoak ezarriko ditugu:

- Merkataritza- eta zerbitzu-sektorea kokatzen dien hiri-espazio eta -azpiegiturak hobetuko ditugu.
- Merkataritza-guneetan hutsik dauden lonjen okupazioa sustatzeko Ekintza Plan bat egingo dugu, gauzatu beharreko jarduerak zehazteko, ondoren baloratu eta, hala bada, gorkio, lehenesteko.
- Udalerriko enpresa-sarera hurbilduko gara, enpresa-sarearekin bisita eta bilera programatuak eginez.
- Enpresentzako Arreta Zerbitzua (EAZ) garatuko dugu Egaz-Txorierriekin batera, udal zerbitzuak enpresa sarera hurbiltzeko.

MERKATARITZA- ETA OSTALARITZA-SAREA SUSTATZEA ETA HAREKIN LANKIDETZAN ARITZEA


Merkataritza- eta ostalaritza-sarearen hazkundearekin konprometitutako udalerrri-eredu baten aldeko apustua egiten dugu, hiri-egitura garatzeko eta pertsonak gizartean integratzeko tresna gisa. Horrela, Deriocom merkatarien Elkarte eta ostalarien kolektiboa indartzeko, hiriguneko sektore horien aldeko jarduketa hauek egingo dira:

- Merkataritza/Ostalaritza Sektoreak garatzen dituen jardueretako osagarri diren familia-aisiarekin lotutako jarduerak egitea.
- Deriocom eta ostalarien kolektibotik egiten dituzten kanpaina desberdinak antolatzen lagunduko dugu.
- Deriocom merkatarien Elkarte eta ostalarien kolektiboarekin sortutako lan-mahaiak indartuko ditugu.

4. potenciación de la actividad económica municipal:

ENPLEGUA SUSTATZEA ETA LANERATZEA ETA ENPLEGAGARRITASUNA HOBETZEA

- Kalitatezko enplegua sustatzea, udalerriko langabeak kontratatzen dituzten tokiko enpresei laguntzea, Derioko herritarren enpleguaren egonkortasuna sustatzea eta gure udalerriko langabeen enplegagarritasuna eta laneratzea hobetzea lehentasuna dira Udalarentzat, azken batean, enpleguaren kantitatea eta kalitatea hobetzea. Helburu horiek betetzeko, honako jarduera hauek garatuko ditugu:
- Eskumenak garatzeko, gaitasun teknikoa lortzeko eta enplegua sustatzeko jardura-ildoak bilduko dituen Udaleko enplegu-planak garatzea.
- Enplegu-politika aktiboak garatzea Egaz-Txorierrirekin batera.



kronograma





antolakuntza

ANTOLAKUNTZA													
HELBURU ESTRATEGIKOAK	EKINTZAK	AURREKONTUA	KRONOGRAMA										
			2019		2020			2021			2022		2023
1. ADMINISTRAZIO ERAGINKORRA	1.1. ANTOLAKUNTZA BERRIA	60.000 €											
	1.2. LANGILEEN TREBAKUNTZA	60.000 €											
	1.3. ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOA	60.000 €											
	1.4. KUDEAKETA-SISTEMA / EBALUAZIO ETENGABEKOA	30.000 €											
2. GARDENTASUNA	2.1. PUBLIZITATE AKTIBOA AREAGOTZEA ETA INDARTZEA	15.000 €											
	2.2. INFORMAZIOA ESKURATZEKO ESKUBIDEA BERMATZEA	15.000 €											
	2.3. GOBERNU ONA EZRRI ETA BERMATZEA	15.000 €											



herritartasuna

HERRITARTASUNA															
HELURU ESTRATEGIKOAK	EKINTZAK	AURREKONTUA	KRONOGRAMA												
			2019		2020			2021			2022			2023	
1. HERRITARTASUN AKTIBOA SUSTATZEA	1.1. ELKARTEGINTZA SUSTATU ETA BULTZATZEA	75.000 €													
	1.2. KULTURA-, KIROL- ETA AISIALDIKO JARDUERA SUSTATZEA	790.000 €													
	1.3. HERRITARREN PARTE-HARTZEA BULTZATU ETA SUSTATZEA	114.000 €													
2. GIZARTE BABESA BERMATZEA	2.1. BABES-EREDUA DEFINITZEA ETA POLITIKA INKLUSIBOAK GARATZEA	280.000 €													
	2.2. ZERBITZU-ZORROA IKUSGAI EGITEA	24.000 €													
	2.3. SEKTOREKO ELKARTEEN JARDUERA BULTZATU ETA LAGUNTZEA	60.000 €													



Iurraldea

LURRALDEA																
HELBURU ESTRATEGIKOAK	EKINTZAK	AURREKONTUA	KRONOGRAMA													
			2019		2020				2021				2022			
1. ESPAZIO ETA ONDARE PUBLIKOAREN HOBEKUNTZA, KONTSERBAZIO ETA MANTENTZE ERAGINKOR ETA ARRAZIONALA	1.1 ESPAZIO PUBLIKOAREN KONTSERBAZIO ETA MANTENTZE ERAGINKOR ETA ARRAZIONALA															
	1.2. ONDARE PUBLIKOAREN KUDEAKETA ERAGINKORRA	Baliabide propioak														
	1.3. UDAL INBERTSIOA HOBEKUNTZA ETA PROIEKTU BERRIETAN	1.700.000 €														
2. SEGURTASUNA, IRISGARRITASUNA ETA MUGIKORTASUNA BERMATZEA	2.1 SEGURTASUNA AREAGOTZEN JARRAITZEA	570.000 €														
	2.2. UDALERRIAN IRISGARRITASUNA HOBEU ETA BERMATZEA	755.000 €														
	2.3. MUGIKORTASUN JASANGARRIA SUSTATZEA	145.000 €														
3. HIRI- ETA INGURUMEN- BERRANTOLAKETA	3.1 HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN OROKOR BERRIA IDAZTEA	350.000 €														
	3.2 INGURUMEN- ETA JASANGARRITASUN-JARDUERAK SUSTATZEA	80.000 €														
4. UDALERRIKO JARDUERA EKONOMIKOA SUSTATZEA	4.1 PLAN ESTRATEGIKOAREN GARAPENA	90.000 €														
	4.2 MERKATARITZA- ETA OSTALARITZA-SAREA SUSTATZEA ETA HAREKIN LANKIDETZAN ARITZEA	192.000 €														
	4.3 ENPLEGUA SUSTATZEA ETA LANERATZEA ETA ENPLEGAGARRITASUNA HOBEZTEA	500.000 €														

kudeaketa plana

2019/23

